

Quo Vadis, zinema?

Zinema ugari ezagutu ditu Donostiak. 1980ko hamarkadan, areto askoko zinemak agertu ziren. Baina, negozioa ez zen uste bezain ondo joan. Garbera eta Astoriaren itxiera dira horren erakusgarri.

Orreaga Aranburui

Igandean, hilak 15, Garberako zinemak itxiko ditu SADEK, eta datozen hilabeteetan, Astoria ere itxiko dutela jakinarazi du. Hala, Donostian zinema aretoak gain behera doazela dirudi. Garai batean, berriz, arrakasta handia izan zuen zazpigarren arteak.

Oso azkar iritsi zen zinemaren magia Donostiara. Lumière anaiek 1895eko abenduaren 28an aurkeztu zuten zinematografoa Parisen, eta zazpi hilabete behar izan zituen gure hirira iristeko: 1896ko abuztuaren 6an, mugitzen ziren irudiak ikusi zituzten lehen aldiz donostiarrek, Bulebarrean, feriak zirela-eta.

Zenbait urtetan ikuskizun mota hau errepikatu zen. Ez ziren ikuskizun egonkorak, eta feriak amaitutakoan beste herri batzuetara eramaten zituzten. Farrusini, Rocamora, Requena, Manresa eta Petit


Palais izan ziren, besteak beste, garai hartan zinematografoa ekarri zuten feria-

lariak. Gerora, Rocamorak Murillo eta Goya areto finkoak ireki zituen hirian. 1905ean Sanchisek beste bat ireki zuen. Areto hauek, baina, berehala desagertu ziren, jendea erakartzeko zarata handia ateratzen baizuten, eta bizilagunak kexu baiziren.

Zabalkuntza

XX. mende hasieran, kafetegiak filmak ematen hasi ziren. Pixkanaka, zinema antzerkiari gailendu, eta antzokiak ere filmak pantailaritzen hasi ziren.

Eliza bera ere, "zinemaren asmatzak ekar zezakeen kalte morala" ekiditeko, bere intereseko filmak ematen hasi zen. Artzain Onaren katedralean, Karmeldarren elizan eta San Sebastian parrokian zinema emanaldiak antolatu zituzten 40ko eta 50eko hamarkadetan. Erlijosoen eskoletan ere proiektoreak erosi zituzten.



Alberto Elósegui

Antzokietan lehenik

Soilik zinemarako aretoak ireki aurretik, antzokiak hasi ziren film programazio egonkorra eskaintzen.

Antzoki Zaharra dugu hiriko antzokirik zaharrena. 1850ean ireki zuten. Orotariko ikuskizunak hartu zituen: dantza, antzerkia, mitinak, onegintzazko jaialdiak... Eta hainbat urte geroago, pelikulak.

Donostiako beste antzoki garrantzitsua bat Victoria Eugenia dugu. 1912an ireki eta urte beran hasi ziren filmak ematen. Erabakiak antzerki zale batzuen haserre sortu zuten, antzerkia baztertu zela ziortelako. Ohiko programazioan filmak eskaintzeaz gain, Victoria Eugenia antzokiak lotura zuzena du zinemarekin: 1953an Zinemaldia egin zen lehen aldiz, eta urte hartatik, 1999ra arte, antzoki hau izan zen egoitza nagusia.

**70eko hamarkadan
estreinaldiak
Astorian
ematen zituzten**

Victoria Eugeniaren urte berean ireki zuen El pueblo Vasco egunkariak Novedades aretoa, Garibai kalean. 1931n guraso talde batek hartu zuen bere gain aretoa. 1934an, berriz, Gipuzkoako Elkarte zinematografikoa sortu zen, eta Novedades aretoa hartu zuen. 1979an itxi zuten.

1913an ireki zuten Miramar aretoa, Aldamar kalean eta 1987an itxi zuten.

1914an ireki zuten Bellas Artes berria, Prim eta Urbieta kaleen artean, urtebete lehenago Euskal Herria kaleko Bellas Artesek zutea jasan baizuen.

Ben Hur-en urteak

Arestian aipatutako gehienek, baina, atekak itxi edo film programazio egonkorra eskaintzeari utzi diote. Egun ezagutzen dugun Principek, berriz, historia luzeagoa du. 1922ko uztailan ireki zuten Teatro del Principe izenarekin, eta urrian hasi ziren filmak ematen. Bertan estreinatu zuten "Ben Hur" film mitikoa, 1929ko azaroaren 21ean.

Kursaal Handia antzokian ere ematen zuten filmak. 1922an ireki eta 1925ean hasi ziren filmak programatzen. 1972an itxi zuten. Gaur egun, bere lekua hartu duten kuboetan, zinemaldiko pelikulak baino ez dira eskaintzen.

Aldaketak aldaketa, 1923an ireki zuten Trueba eta oraindik zabalik dirau.

1925ean Petit Casino ireki zuten Parte Zaharrean, Antzoki Zaharraren ondoan. Inaugurazio egunerako dantza errusiarrak ekarri zituzten. Bigarren egunerako filmak prestatu zituzten programazioan.

1925 urte amaieran, zinema eta kultura ikuskizunekin lotutako bi enpresa elkartu, eta SADE —Kirola eta Ikuskisunen Elkarte Anonimoa— sortu zen.

Zinema aretoak

Actualidades zinema izan zen zinema izenez ireki zuten lehena. 1951ko San Sebastian egunez zabaldu zuen Gipuzkoako Elkarte Zinematografikoa, Arrasate kalean. 1968an Kútxako Kultur Etxe bihurtu zen.

Gutxiago iraun zuen Novelty aretoa. Actualidades-en kale berean zegoen eta 1951n ireki eta 1976an itxi zuten, erren-tagarrria ez zelako. Lokala Donostiako Orfeoiak hartu zuen.

Gertuago dugu oroimenean Antso Jaki-

tuna etorbideko Rex zinema. 1957an ireki zuten. 1991n itxi zuten, izan ere, Astoria gertu zegoen, eta ordu-rako zazpi gela zituen Astoriak. Egun, Kutzaren bulegoa dago Rex zegoen tokian. Ondoan, Rex taberna dugu, zinemaren oroigarri.

Oroimenean gertu

Astoria 1961ean ireki zuen SADEK. 70eko hamarkadan estreinaldi handiak bertan ematen zituzten, Donostian 70 mm-ko formatua zuten zine bakarra zelako. Filmak hilabete luzez izaten zituzten karteldegian. Ondoren, Petit Casinon izaten zen film bera astebetetz. Hurrengo aste-buruan, berriz, Bellas Artesera eramaten zuten.

Savoy zinema ere gertu dugu oroimenean, 90eko hamarkadan zabalik zirauelako. 1962 urtean ireki zuten Groseko San Frantzisko kalean.

Getaria kalean zegoen Amaya zinema ere, itxitako azkenetakoen artean dugu. Batez ere, haur eta gazteentzako filmak ematen zituzten hasieran.

Bizitza laburra

Egiak ere izan zuen zinema: 1967tik 1977ra Karmengo Ama kalean Dunixi zinema egon zen. Baina auzotik gertu zeuden aretoek film hobeak eskaintzen zituztela eta, hamar urte ere ez zituen egin.




Amaya Aretoa

Bizitza laburragoa izan zuen, hala ere, Kursaal barruan zegoen Inesa de Gaxen aretoa. 1969tik 1972ra iraun zuen. Garai hartan arrarotzat jotzen ziren filmak ikusteko aukera ematen zuen: lan sozialak, politikoak, erotikoak... "Hiroshima mon amour" pelikularekin ireki zuten aretoa. Itxi ere, pelikula berarekin itxi zuten. Amaieran, txistulari banda batek Agur Jaunak jo zuen, eta ikusle guztiei xanpain kopa bana eman zieten.



Rex Zinema



Miramar Aretoa

noramikia estreinatu zuten Miramar aretoak "Quo Vadis" filmarekin.

1955ean zinemaskopea –pelikulak pantaila zabal batean proiektatzeko teknika– Donostiara iritsi zen lehen aldiz. Antzoki Zaharrean erabili zen sistema hori estreinakoz. "La tunica Sagrada" filmarekin.

Areto askoko

hasi zen, eta pelikula bakar baten eskaintzak ez zuen lokalaren kostua ordaintzeko beste ematen", azaldu digu SADEko kudeatzaile Leopoldo Arsuagak.

Petit Casino izan zen berriitu zuten lehenena: 1984an hiru aretoko zinema bihurtu zuten.

1989an aldatu zuten Astoria, eta areto handi bakarra izatetik, zazpi izatera igaro zen. Urte berean, Trueba itxi eta hiru urte geroago ireki zuten bi pantailaekin.

Azkenik, Principek bi eraldaketa izan ditu, 1995ean lehenena, eta 2003an bigarre-na. Egun hamar pantaila ditu.

90eko hamarkada amaieran, zinema berriak ere agertu ziren hirian: 1997 amaieran ireki zituen SADEK Garbera merkataritza guneko zinemak. 1998ko urrian, Warnerrek zinemak jarri zituen Ilunben eta 1999an Oscar La Bretxa zinemak ireki zituzten Bretxan.


Berrikuntza urteak

Zinemaren lehen urteetako kalitateak eta egungoak, noski, ez dute zerikusirik. Aldaketak pixkanaka etorri ziren.

1930ean iritsi zen soinua lehen aldiz Donostiara. 1954ko otsailean Pantaila pa-

zinemak

80ko hamarkada ere aldaketa garaia izan zen. Pixkanaka, areto handiak desagertu eta areto askoko zinemak agertu ziren. SADEK egin zuen aldaketa honen aldeko apustua. "Zinema ikusleak galtzen



Zinemak lehen eta orain

- 1 Warner Lusomundo
- 2 Astoria
- 3 Rex
- 4 Bellas Artes
- 5 Actualidades
- 6 Novelty
- 7 Amaya
- 8 Novedades
- 9 Petit Casino
- 10 Antzoki Zaharra
- 11 Principe
- 12 Miramar
- 13 Bretxa
- 14 Victoria Eugenia
- 15 Kutsaal Handiz/Inesa de Gaxtel Aretoa
- 16 Trueba
- 17 Savoy
- 18 Dunxi
- 19 Garbera

- Egungo zinema aretoak
- ⊘ Desagertutako aretoak
- ⊗ Desagertzeaz diren aretoak

“Ezin errentari eutsi”


Egoera honetan, Garberako zinemen truke ordaintzen den errenta mantentzea ezinezko dela azaldu digu Leopoldo Arsuagak: *“1996an, lokalen errenta hitzartu genuenean, ez genuen uste Donostian zinema gehiago irekiko zenik. Izan ere, legez ezinezkoa zen. Ondoren, Udalak legea aldatu eta Bretxako eta Warnerreko zinemak irekitzea ahalbidetu zuen. Ondorioz, gure ikuslegoa jaitsi egin zen, eta ezin dugu errenta ordaindu”*.

Datozen hilabeteetan Astoria ere ixtea aurreikusi du SADEK, eta bertan hotel bat egiteko proiektua du. *“Odon Elorza alkateak lur publikoan Warner irekitzea baimendu zuenean Astoriari heriotza zigorra ezarri zion. Warner oso gertu dago eta aparkatzea errazagoa da. Arriskua ikusita, beste proiektu bat lantzen hasi ginen. Hala ere, ez dugu eskaintza jaisterik nahi, eta beste zinema bat irekiko dugu”*, azaldu digu Arsuagak.

Zinema gainbeheran?

Azken urteetan hirian pantaila edo aretoak ugaritu arren.—1994an 16 pantaila/areto zeuden, eta egun 45— ikusle gogtxi dago egun. DVDek, internetek... gero eta toki gehiago hartu dute aisialdian.

Ainhoa Torres Euskalbideoko langilearen hitzetan, azken hiru urteetan gora joan da DVDen alokatzea. *“Iaz DVDen eta*



Alberto Elozegi

bideoen alokairua berdinduta zegoen. Azken hilabeteetan, berriz, dendako alokairuen %70 DVDak izan ziren. Izan ere, azken urteetan DVD erreproduktoreak merketu egin dira”, azaldu digu. Hala ere, internetetik pelikula piratak jaitsi ahal izateak zinemaren gainbeheran eragina duela uste du.

Leopoldo Arsuagaren ustez, ordea, internetek zinemari egiten dion kaltea ez datza horretan: *“Internetek aisialdirako ohiturak aldatu ditu, eta gazteek ordu asko ematen dituzte interneten sareko jokoetan edo txateatzen”*.

Jende askok, bestalde, sarreren salneurria jartzen du zinemara gutxi joateko

Ferialariek ekarri zuten zinematografoa

arrazoizat. Arsuagak, berriz, bi garagardok sarrera batek beste balio dutela dio. Bestalde, prezioak jaitea zaila dela uste du. *“Banatzaileei leihatilan lortutakoaren batz besteko bat ordaintzen diegunez, salneurriak mantentzeko presioa egiten digute”*.

LUZE ZABALEAN

Euskal Herriko hiriburuuetako zinemak

Euskal Herriko hiriburuetan zenbat zinema areto dauden aztertu dugu. Emaitzek erakusten dutenez, biztanlerik gutxien duten hirietan dago biztanleko eserleku gehien. Donibane Garazi eta Maule dira kasu esanguratsuenak. Beste puntan Bilbo dago, biztanleko eserlekurik gutxien duen hiria. Donostiak eta Gasteizek, berriz, bost eserleku dituzte 100 biztanleko. Donibane Garazi eta Mauleren ondoren, kontzentrazio handiena duten hiriak dira, beraz.

Hiria	zinemak	aretoak	eserlekuak	biztanleak	eserlekuak 100 biztanleko
Donibane Garazi	1	1	300	1.416	21
Maule	1	2	416	3.344	12
Donostia	6	45	8.983	178.377	5
Gasteiz	7	60	10.957	216.852	5
Irune	6	35	7.012	183.964	3,8
Baidoa	2	7	1.170	40.113	2,9
Bilbo	5	29	7.935	349.972	2,3

* Donostiako zinemetako eserlekuak zenbatzean, Garbera eta Astoriakoak sartu ditugu, itxi aurreko egoera erakusteko. Garbera itxi ondoren, lau eserleku izango dira biztanle bakoitzeko; eta Astoria itxi ondoren, hiru; Bilbon eta Baionan baino gehiago beti ere.